



SORALUZeko UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

ORALUZeko UDALAREN ETA PIL-PILEAN EUSKALDUNON ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA, 2022. URTEAN ELKARTEA "EUSKARALDIA; HITZ EKITEKO GARAIA" EKIMENA KUDEATZEKO LANEZ ARDURATU DADIN.

Soraluzen bi mila eta hogeita biko apirilaren 7an

BILDURIK

Soraluzeko Udaleko Alkatea, Iker Aldazabal Basauri eta bestetik, Arianne Unamuno Loidi, Pil-pilean Euskaltzaleen Elkartearen lehendakaria.

ADIERAZI DUTE

1.-Eusko Jauriaritzak eta Euskaltzaleen Topaguneak "Euskaraldia; Ariketa sozialaren hirugarren edizioa" ekimena jarri dute abian 2022. urteei begira, eta deia luzatu diete berriro ere erakunde publiko eta gizarte eragileei bertan parte hartzeko.

2.- Soraluzeko Udaleko Hizkuntza Politikaren Zerbitzuak eta Pil-Pilean Euskaltzaleen Elkarteak ekimenarekin bat egiten jarraitzea erabaki dute eta lankidetzan jardungo dute herri mailako ekimenaren motore moduan.

3.- Ekimenaren bigarren edizio hau 2022 urtean gauzatuko da, ariketa soziala 2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitartean izango delarik.

4.-Ondorengo hauek dira ekimenaren hirugarren edizioaren helburu nagusiak:

- Lehen eta bigarren edizioetan herritarrek modu kolektiboan hizkuntza-ohiturak aldatzeko irekitako bideari jarraipena eta bultzada ematea.
- Mota guztietako entitateek euskaraz aritzea ahalbidetu eta babesteko erabaki berriak hartu eta urrats esanguratsuak ematea.
- Euskaraldiko herri batzordeak indartzea lankidetzan oinarriturik; hanka instituzionalaren inplikazioa bermatuta eta hanka sozialaren autonomia zainduta.
- Ahobizi eta belarriprest praktikak errotu eta euskarari buruzko arau sozial berriak gizartean txertatzen jarraitzea.

5.- Herritar eta entitateak aktibatzea hilabeteetako lana izanik, ekimenaren sustatzaileek oso gomendagarritzat jotzen dute dinamizatzaile bat liberatzea. Hori horrela, Soraluzeko Udalak eta Pil-pilean Euskaltzaleen Elkarteak dinamizatzaile profesionala jarriko dute ekimenaren kudeaketaz ardura dadin. Pertsona honen batz besteko lan-jarduna egunean bi ordukoa izango da.

6.- Dinamizatzailearen kontratazioaz eta koordinazioaz Pil-pilean Euskaltzaleen Elkarteak arduratuko da, Udala izango delarik kontrataziotik eratorritako gastuez arduratuko dena, elkarteari emango dion 10.500 euroko diru-laguntzaren bidez.

7.- Dirulaguntza hau zati batean ordainduko dio Udalak elkarteari, abenduaren 31a baino lehenago.



SORALUZEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

Eta horrela jasota uzteko eta euren adostasuna agertzeko, honako hitzarmen hau egin eta hasieran aipatutako toki-egunetan izenpetu dute bi parteeek.

Iker Aldazabal Basauri
Soraluzeko Udaleko Alkatea



Arianne Unamuno Loidi
Pil-pilean Euskaltzaleen Elkarteko
Lehendakaria

